

ASTEARTEA

2019/05/07
7. urtea, 1.051. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €



JOSU ARTUTXA

«Ekainean elkartearen aurkezpen moduko bat egingo dugu»

**MAIXA LIZARRIBAR ETA
MANEX TORREALDAI
TRIKITILARIAK**

Tolosaldeko Trikitixa Elkarteak sortu dute trikiti mugimendua indarberritu asmoz; bazkari bat antolatu dute ekainaren 2rako // 2

**Aimar
Irigoiengaraile,
Gorostidi
Harriaren
Txapelketan**

Zazpi harri-jasotzaile izan ziren lehian, Adunan; urteroko moduan 185 kiloko zilindro zaharra esku bakarrarekin jasotzeko erronka zegoen, baina ez zen inor ausartu // 7

TOLOSA OLATU URDINERA BATZEKO DEIA

Tolosaldeko Arraun Klubak aurkeztu du aurtengo trainerua; arraunlariak pasa den urteko emaitza bikainak errepikatu nahi dituzte eta lanean ari dira jada; eskualdea «amesten jarri» nahi dutela esan dute // 7


ALEGIA – Beistin Auzoa

Azken etxebizitzak!



4 logela + 2 bainugela 180m2 erabilgarritik gora
275.000€ tik hasita

VILLABONA – Kale Berria 48



3 logela + 2 bainugela
205.000€ tik hasita

Etxebizitza herri erdigunean!

**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

KALE BERRIA 46, BEHEA
20150 VILLABONA

**607 445 484
943 69 02 97**

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com



JOSU ARTUTXA

«Trikitia maite duen edonorentzako festa handi bat izango da»

MAIXA LIZARRIBAR ETA MANEX TORREALDAI TOLOSALDEKO TRIKITIXA ELKARTEKO KIDEAK

Tolosaldeko trikiti mugimendua indarberritzeko, herritar batzuek, egitasmo berri bat sortu dute. Ekainaren 2an, elkar ezagutu asmoz eta festa giro ederrean, bazkaria egingo dute Benta Aldea jatetxean.

Josu Artutxa Dorronsoro

Edozein erromeritan elementu berezirik baldin bada, hori trikitia da. Instrumentu horrekiko zaletasuna, geroz eta handiagoa da Tolosaldean. Hori dela eta, elkarre berri bat sortu dute, eta Maixa Lizarribar eta Manex Torrealdai bertako kideak dira. Eskualdeko zale oro gonbidatzen dituzte beraien elkartzera.

Nondik etorri zitzaizuen elkarte bat sortzeko ideia?

Maixa Lizarribar: Hiru hilabete dira, Manexek buruan bueltaka ideia bat zebilkiela esanez deitu zidala. Nik ere antzeko zerbait egiteko asmoa nuen, baina norbaitek lehen urrats hori ematea behar genuen.

Behar bat ikusi zenuten?

M. L.: Behin, trikiti giroa izango duen festa egun bat antolatzeko proposamena bota zen. Tolosaldean, herri askotan irakasten da trikitia, baina ikasleek ez dute elkar ezagutzen. Hortaz, afizio bera

duten gaztetxoek arteko harremanak sustatzea da asmoa.

Manex Torrealdei: Lehendik ezagutzen ginen lagun batzuk el-

IRAGARKI LABURRAK

Zerbitzaria

Tolosaldea. Taberna batean zerbitzari bat behar da. Interesatuak, deizatzela 647 446 363 zenbakira.

Operadorea

Abaltzisketa. Logikalline enpresak operadore bat bete behar du, lanaldi osorako. Kontratua 6 hilabetekoa da, eta gaztelera, euskara eta ingeleza menperatzea eskatzen da. 943 318 606 zenbakira deitu edo rrhh@logikalline.com helbidera idatzi behar da.

Kamioi gidaria

Tolosaldea. Olaso Elkartea S.L. enpresak, LC+E gidabaimenak eta CAP-a duen esperientzia duen kamioi gidaria behar du. Baldintza onak eta epe luzeko kontratua eskaintzen dira. Interesa duenak, 627 197 524 telefono zenbakira deitu behar du.

kartu ginen, baina ziur gaude eskualdean trikitia jotzen duen jende gehiago dagoela. Ekainean, hortaz, elkar tearen aurkezpen moduko bat egingo dugu. Hala ere, oraindik jendea elkartera baten ari da.

Nola hasi zineten jendearekin kontaktua egiten?

M. L.: Inguruan, trikitia non irakasten zuten begiratzen aritu ginen, eta eskola horietako ateak jo genituen. Orain, bertako irakasleak lantaldeko parte dira.

Zein da elkar tearen egoera?

M. T.: Elkar te izaera lortzeko prozesuan gaude. Estatutuekin borrokan ari gara, informazioa lortuz, eta abar. Taldea osatzen dugunon artean, aniztasun handia dugu: irakasleak, txapelketetan aritzen direnak, erromeri talde batean dabilzanak...

Euskal Herrian ba al dago horrelako elkar teirik?

M. T.: Azpeitian, Triki Giro izeneko mugimendua sortu zuten duela bizpahiru urte. Bailaran trikitia jotzen zuten herritarrek elkar ezagutzea nahi zuten. Kalejirak, afari herrikoiak edota erromeria egiten dituzte urtero. Hori ikusita, egitasmo hauek, eskualdean, Euskal Herri mailan baino hobeto funtzionatzen dutela uste dut.

Herrigiroko ekimen txikiak, gerora ekintza handiagoak egiteko aukera ematen dute?

M. L.: Gauzak egiteko gogoia dagoenean, ideiak bakarrik ateratzen dira. Ingurura begiratu, eta adibideak aurkitzen hasten zara.

Zein helburu dute trikitiaren bueltako topaketek?

M. L.: Hortik ateratzen duzun etekina izugarria da. Jendea ezagutzeaz gain, elkarrekin batera jotzeko aukera izaten dute. Kalera ateratzen gara, elkarren artean hitz egin, ezagutza partekatu, eta kontaktu berriak egiteko.

M. T.: Orokorrean motibazio falta handia nabaritzen dut. Eskualdean trikitilari asko daude, oso ondo jotzen dutenak, baina gero kalera jotzera ateratzeko lotsa edo nagia izaten dutenak. Ez da erraza, baino urrats bat ematea besterik ez da; egoera berean jende ugari dagoela ikusten duzunean, errazagoa da.

Ekainaren 2an egingo duzue topaketa, bazkari eta guzti.

M. T.: Bai. Aurrez, gainera, kalejira bat egingo dugu.

M. L.: Berez, deialdi irekia izango da. Hala ere, menuak 30 euroko kostua du. Gu motibatzen abiapuntu bat izango da.

M. T.: Bazkarian izena emateko, tolosaldekotrikitixa@elkaratea@gmail.com helbide elektronikora mezua idatzi behar da, maiatzaren 17a baino lehen.

Urteko bilkura nagusia eta Senperera joateko autobusa

TOLOSA // Galtzaundi Euskara Taldeak, bi ekintza antolatu ditu aste honetarako. Ostegunean, 19:00etan, urteko batzar nagusia egingo dute, Galtzaundikideen aurrean, Anoetako udaletxean. Ondoren, Jon Sarasuarekin, hausnarketarako tartea izango da. Igandean, berriaz, Herri Urrats festara joateko autobusa antolatu dute. Osteguna da izena emateko azken eguna, eta 10 euro balio ditu (bazkideek, 8).

Pirinioetara irteera, Alpino Uzturre elkar teak antolatuta

TOLOSA // Igandean, Alpino Uzturre elkar tearekin, Bidarra mendibide ibilaldia egiteko aukera izango da. Pirinioetako ibilbide klasiko eta erakargarrienetako bat da, 5 ordukoa, eta Izpegi eta Iparla gainak igoko dituzte. Autobusa, 07:30ean irtengo da San Frantzisko eliza ataritik. Izena eman nahi dutenek, info@alpinouzturre.eus helbidera mezua idatzi edo 943 652 789 telefono zenbakira deitu behar dute.

Postal Kolekzionistak taldearen kontzertuko sarrerak, salgai

TOLOSA // Postal Kolekzionista taldeak, bere aurkezpen kontzertua eskainiko du, ostiralean, 20:30ean hasita, Leidor antzokian. Gainera, disko berriaren aurkezpena ere egingo dute. Kontzertura joan nahi dutenek, sarrerak eskuratzeko aukera dute oraindik. 8, 5 eurotan daude salgai, Leidorreko leihatilan, ondorengo egunetan: ostegunean (18:15-19:30 eta 20:45-22:00) eta ostiralean (19:30-20:30).

'Fotopic 2019' argazki lehiaketan parte hartzeko deia

TOLOSA // Museoen Nazioarteko Eguna dela eta, Topic zentroak, argazki lehiaketa bat jarri zuen martxan. Parte hartzaileek, astelehena bitarte, argazkiak egiteko doako sarrera izango dute bertan. Aukeraturako irudiak, hilaren 15a baino lehen bidali behar dira, cit@citologa.com helbidera. Sari banaketa maiatzaren 18an izango da, eta partaideen artean txotxongilo bat eta lau bonu zozkatuko dituzte.



Baserritarren Eguna ospatzeko afarian izena eman behar da

ALTZO // Altzoko Udalak Baserritarren Eguna antolatu du. Maiatzaren 15a asteazkena denez, hilaren 18an, larunbatean, ospatuko dute. 21:00etan izango da afaria, eta afaltzera joan nahi duenak izena eman beharko du hilaren 16a, osteguna, baino lehen, udaletxeko 943 65 24 13 telefono zenbakira deituta edo Altzoko Ostaturuko 943 65 22 62 telefono zenbakian.

Desfibriladore automatikoa erabiltzen ikasteko ikastaro berria

Amezketako Udalak ordubeteko bi saio antolatu ditu; izena hilaren 10a baino lehen eman behar da

E. Maiz Amezketako

Amezketako Udalak kanpoko desfibriladore automatiko bat jarria du udaletxearen eta pilotalekuaren arteko pasabidean, eta erabiltzen ikasteko ikastaro laburrak antolatu ditu. Egun berean, hilaren 14an, izango dira bi saioak.

Pertsona batek bihotzekoa edo bihotz geldiketa bat sufritzen duenean erabiltzen dira. Desfibriladoreen erabilpena zaila ez bada ere, beharrezkoak dira oinarrizko ezagutza batzuk erabiltzeko, egoera larri baten aurrean, desfibriladorea ezagutzarik gabe erabiltzeak mesede baino kalte gehiago egin baitezake.

Bi saioak kultur etxeko areto nagusian, hilaren 14an izango dira: 17:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 19:00etara. Ordubeteko bi saioak Amezketako Osasun Zentroko medikuak eta erizainak emango dituzte.

Ikastaroa egitera animatzen diren herritarrek, izena eman beharko dute hilaren 10a, ostirala, baino lehen, udaletxean; bertaratuz, telefonoz deituta edo emailaz mezua idatzita. Zein saiotan parte hartu nahi den zehaztu beharko da.

Irekia da herritar guztientzat, eta Amezketako Udalak, herritarrek ikastaroan parte hartzera animatu nahi ditu.

Udaleku irekien bilera, gaur, Alegiako kultur etxean

ALEGIA // Alegiako Udalak herriko gazteei begira antolatutako udako eskaintza prest du. Udaleku irekiak eta itxiak, multikirola eta piraguismoa izango dira uztailean garatuko diren jarduerak. Gaur, 18:00etan, bilera irekia egingo da kultur etxean, eta ekimen guzti horien gaineko informazio zuzena emango da: epealdiak, izen emateak, kostuak, adina...

Amezketako haur eskolan izen ematea zabalik dago

AMEZKETA // Ostegunean irekiz Amezketako haur eskolan izen emateko epea. 2019-2020 ikasturterako izen ematea ostiralerara bitartean egongo da zabalik. 0 eta 2 urte arteko haurrek eman dezakete izena, hau da, 2018 eta 2019 urteetan jaioetakoen. Interesatuak 943 65 09 92 telefono zenbakira deituz jaso dezakete informazioa, edo haur eskola bertara joanda.

861

TXARTEL HORIA

Abaltzisketako Larre Irekiera festan, Txalburu eskolako guraso elkarteak, saski baten zozketarako zenbakiak saldu zituen, Larraitzen. Bi koloretako txartelak saldu zituzten, eta zorteduna, kolore horiko 861 zenbakia izan da. Guraso elkartetik eskerak eman nahi dizkiete saskia osatzeko produktuak eman zituzten guztiei, eta baita erosi zituzten guztiei ere.

Altzoko Udalak begiraleak behar ditu udaleku irekietarako

Ekainaren 24tik uztailaren 24ra izango dira, eta hilak 15 da curriculumak aurkezteko azken eguna

E. Maiz Altzoko

Altzoko Udalak ekainaren 24tik uztailaren 24ra udaleku irekiak antolatuko ditu, 2007 eta 2016 urte artean jaioetako haurrentzat. Begiraleen kontratazioa ekainaren 19tik uztailaren 24ra bitartekoa izango litzateke.

Begiraleak hautatzerako garaian, hautagaiek bete behar dituzten ezinbesteko baldintzak honako hauek dira: 18 urtetik gorakoak izatea edo 2019 urtean betetzea, eta EGA edo HABE-ren 3. maila izatea. Eduki ezean, euskara ezagutza eta erabilera maila altua izatea baloratuko da. Eta honela banatuko dituzte puntuak: begirale titulua izatea (6 puntu gehienez); Eusko Jaurlaritzak homologatutako eskolak, 6 puntu; beste eskolak, 4 puntu; zuzendari titulua izatea, 2 puntu; hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea, 3 puntu; hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak burutzen aritzea, 2 puntu; EGA edo HABE-ren 3. maila izatea, 5 puntu; lan esperientzia, 5 puntu gehienez; udaleku itxi eta irekietan hamabostaldi bakoitza, 0,5 puntu; eta altxotarra izatea, 5 puntu.

Aukeratuen artean berdinke-tarik egongo balitz, zozketa bidez erabakiko da. Bestalde, aukeratuak izan diren hautagaiek, adingabekoei lan egiteko aurrerari penalen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Interesatuak curriculumak eta informazioa egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dituzte Altzoko udaletxean, eta horretarako azken eguna maiatzaren 15a izango da. Aldez aurretik jakinarazi dute, ez dela onartuko epez kanpoko izen ematerik. Informazio gehiagorako 943 65 24 13 telefono zenbakira deitu daiteke, edo udala@altzo.eus helbide elektronikora idatzi.

Horrez gain, begirale gisa praktikak egin ahal izateko aukera izango da, baina eskaera egin beharko da hilak 17a baino lehen. Postu bakarra izango da, eta altxotarrek lehentasuna izango dute.



Leioako probara joan ziren sei ikasleak; sarituak, ezkerretik hasita, lehena eta bosgarrena dira. ATARIA

Murua eta Zabala sarituak, Matematikako Udaberriko Lehiaketan

Alegiako Aralar Institutuko DBH-ko bi ikasleak irabazleen artean daude; sei izan dira lehen fasea gainditu dutenak

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Alegiako Aralar institutuko Aimar Murua Antolin (DBH4) eta Jon Zabala Murua (DBH2) ikasleak Matematikako Udaberriko Lehiaketaren irabazleen artean sailkatu dira.

Apirilaren 27an, Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatean izan zen Udaberriko Matematika Lehiaketaren bigarren fasea, eta bertan izan ziren Aralar Institutuko ikasleak.

Euskal Herrian Udaberriko Lehiaketa izenez ezaguna den Matematika lehiaketa da hona-

koa. Aralar Institutuan bertan egin zuten lehenengo faseko proba, eta bertatik sei ikasle izan ziren sailkatuak Leioako bigarren probara joateko.

Bigarren fasea egin ostean, pasa den ostiralean jakin zuten sei ikasle horietatik bi, sarituak izango direla. Maiatzaren 17an, 18:00etan, izango da sari banaketa ekitaldia Leioako Aula Magnan. Eta Ainhua Luloaga irakasleak jakinarazi duenez: «Bertan jakingo da zehazki lortutako postuak zeintzuk diren».

Matematika ongi ikastea ikasle, guraso eta irakasleen kezketako

bat izan ohi dela diote institututik: «Aralar institutuak eta EHU-UPVko Zientzia eta Teknologia Fakultateak antolatzen dugun lehiaketa honek, eta Computense unibertsitatearen laguntza duenak, tresna bat gehiago izan nahi du».

Proba honetan «zailtasun maila desberdineko buruketak erresolbitu behar izaten dituzte ikasleak, ezagunak dituzten matematikako tresnak erabiliz», argitu du Luloaga irakasleak. Ikasleak, logika, geometria, aljebra eta aritmetika jorratzen dituzte.



GOIKOETXEARI BABESA

Joan den ostiralean elkarretaratze jendetsua egin zen Gazteluko plazan, Andoni Goikoetxea presoari animo eta babesa eskaintzeko. Gogorazi zuten «Euskal Herriaren aurka hartutako erabaki politiko bat» izan dela Goikoetxearen atxiloteta. Apirilaren 24an sartu zuten espetxera gazteluarra, gaur egun, Madrilgo Soto del Real espetxean dago eta zazpi urteko espetxe zigorra ezarri diote. I. SAIZAR



BABARRUNA, FRANTZIARAINO

Tolosako Udalaren eta Charleville-Mézièreko Udalaren arteko senidetza-hitzarmenari esker, Tolosako Babarrunaren Kofradiak Frantziako kofradien arteko topaketetan parte hartu du asteburuan. Ia bost kilo babarrun eramane zituzten eta babarrunaz gain, Beasaingo odolkoa, Idiazabalgo gazta, eta Ibarako piperrak ere erakusmahaian jarri zituzten. Bi-daiaren balantze «positiboa» egin dute kofradiakoek. ATARIA



zozketak

Atarikideentzat **lau sarrera** ditugu

Postal Kolekzionistak.
'Azken gaua hirian'

lehen diskaren aurkezpen kontzerturako bi sarrera bikoitz zozketatzen ditugu.

Maiatzak 10, Ostirala
20:30 • Tolosa, Leidor.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus

Pentsiodunek kaleak hartu zituzten

‘Pentsio justu eta duinaren alde’ lelopean ehunka lagun elkartu ziren manifestazioa egiteko; larunbat honetarako dute hurrengo hitzordua.

Irati Saizar Artola Tolosa

Tolosako kaleak aldarrikapen oihuz musikatu zituzten larunbatean eskualdeko pentsiodunek. Manifestazio jendetsua egin zuten, beste behin. Amaierako agerraldian, aldarrikapenak gogorazteaz gain, datozen deialdien berri eman zuten.

Astelehenero moduan, atzo Villabonan elkartu ziren, eta hurrengo astelehenekoa Tolosan egingo dute. Bestalde, maiatzaren 11n, larunbatean, erronka berria jarri dute: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako hiriburuetan manifestazioak egingo dituzte, 18:00etan, «egin ditugun eskarien alde borrokatzeko prest» daudela azaltzeko. «Ez dago jokoan pentsiodunen etorkizuna bakarrik, jendartearen gehiengoarena dago», azaldu dute.

Aldarrikapenen zerrenda osa-



Jendetza gerturatu zen Tolosara, pentsio duinen alde aldarri egitera. I. SAIZAR

tuta dute, eta hori lortzeko bidean jarraituko dutela azaldu zuen Maria Luisa Lizarza Gipuzkoako Duintasuna elkarteak.

Besteak beste, honakoak eskatzen dituzte: Pentsioen sistema publikoa blindatzea, lege eta betirako bermatzea urteroko eros-ahalmena KPIaren ordaina

gutxienez, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea, lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea, 40 urte kotizatu-tako erretiro aurreratuei zigorrak ez ezartzea eta generoaren arrazoiengatik pentsioen arrakala bukatzeko neurri eraginkorrak hartzea.

Saria, tolosarrentzat

Tolosako boluntarioek Urrezko Almadia saria jaso dute asteburuan, Burgiko almadiaren egunean

Erredakzioa

Larunbatean ospatu zen almadiaren eguna Burgin (Nafarroa). Urtero, Urrezko Almadia saria ematen diote norbanako edo talderen bati herrian nahiz bailaran urte luzez egindako lana eskertzeko. Aurten, Tolosako boluntarioek jaso dute saria, tolosarren presentzia «laguntza handikoa» delako.

Maiatzeko lehen larunbata egun seinalatua da Burgin. Garai batean, Pirinioetatik egurra hartu, eta Eska ibaitik garraiatzen zuten, eta gaur egun, ohi-turari eutsiz, almadiaren jaisiera ospatzen jarraitzen dute.

Tolosarren presentzia geroz eta handiagoa da urtez urte egun horretan, eta egiten duten lana eskertzeko jaso dute saria. Hainbat tolosar Burgiko Elizpe



Eriz Lasa eta Dani Telleria Elizpe Elkarteko kideak saria jasotzen. I. URKIZU

Elkarteko bazkide dira eta herri horretan egiten diren ekimene-tan parte hartzen dute boluntario gisa: Almadiaren eguneko aparkalekuak prestatzen dituzte, Almadiaren lasterketaren egiteko guztietan ibiltzen dira eta musikarien kalejirak antolatzen dituzte, besteak beste.

Herritarrek adierazi dutenez, «beren burua edozertarako eskaintzen dute, eta guk badakigu beti egongo dela tolosar bat la-

guntzeko prest, beharra izanez gero».

Saria, Erronkari bailara maite duten tolosar guztiei eskaini nahi izan zieten, baina bereziki Joselu Andueza goraiatu zuten, «Burgin nahiz Nafarroako Pirinioetan gehien inplikatu denetarikoa» izateagatik hain justu. Hori horrela, bere senide Inma Anduezak almadian jais-teko aukera izan zuen, talde osoaren izenean.

Amaitu dira festak Orexan eta Asteasun

Santa Krutz festak ospatu dituzte asteburuan Orexan eta Asteasuko Elizmendi auzoan, eta atzo eman zieten amaiera festei, bi herrietan

I. Saizar Artola

Santa Krutz jaiei hasiera emateko kanpandorretik norbait jais-tea ohitura bilakatu da Orexan eta Asteasuko Elizmendi auzoan. Orexan, oilarraren jaitsiera-ekin bat hasten dira festak eta Elizmendin Simonen zain ego-ten dira, noiz jaitsiko.

Orexan, ostiralean hasi zituzten festak, bakailao eta pizza lehiaketa eta herri bazkariarekin. Larunbat arratsaldea gazte-txoenei zuzendutakoa izan zen; eskolan egindako erraldioen desfilea, txokolate jatea, Ituño magoa eta puzgarriak izan zituzten. Igandean, berriz, pilota partidak izan ziren goizean, eta bertsolari eta sagardo dastatzearekin amaitu zituzten festak.

Asteasuko Elizmendin larunbata eta igandea baliatu zituzten festarako. Simon jaistearekin batera, haurrak izan ziren protagonista. Haur jolasak egin zituzten mus txapelketa jokatzan zen bitartean, eta zezen txikien eta pot-token txanda izan zen jarraian. Igandea Santa Kruz ermitan egindako mezarekin hasi zuten eta hamaiketakoa egin ostean, herri kirol saioa eskaini zuten plazan. Arratsaldean, toka txapelketa jokatu eta trikitilariekin amaitu zituzten festak.



Txupinazoa jaurti ostean haurren jolasak egin zituzten Elizmendin. J. ARTUTXA



Oilarra noiz jaitsiko zain egon ziren gaztetxoak Orexan, ostiralean. A. IMAZ



Lizartzako eta Orexako hurrek eskolan egindako buruhandiekin desfilea egin zuten larunbatean. I. SAIZAR



BATERATZEA, OHOLTZAN

Villabonak eta Amasak bat egin zuteneko laugarren mendeurreneko ekitaldien barruan, **Vagera herri** batikuskizuna eskaini dute asteburuan Olaederra kiroldegian. Herritarrek bat eginda eman dituzten lau mende horien historia kontatu dute, eta emanaldi horretan bildutako dirua Gautena elkarte-ari laguntza emateko baliatu dute. Autismoa duten pertso-
nen familien elkarte da Gautena. ATARIA



KATALUNIAKO DOINUEKIN

Vilafranca del Penedeseako musika eskolako 60 ikasle ibili dira egunotan Tolosaldean, Loatzo musika eskolak gonbidatu-tuta. Ostiral goizean, Altzoko udaletxean, harrera beroa egin zieten eta arratsaldean kalejira erraldoia egin zuten Ibarako kaleetan barrena. Larunbatean, berriz, Anoetan ibili ziren goizean zehar kalejiran, eta kontzertu nagusia arratsaldean eskaini zuten Zizurkilgo Joxe Arregi plazan. ATARIA



KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

27. jardunaldia

Lauburu-Sala Quinto	5-5
Otxartabe-Laskorain	6-5

Sailkapena

1. Alziira	59p
2. Lauburu Ibarra	55p
3. San Juan	53p
4. Futsal Ibi	52p
12. Laskorain	29p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu (2)-Futsal Ibi (4)
Laskorain (12)-Tafatrans (5)

GIPUZKOAKO SENIORRAK, 2. FASEA, LEHEN MULTZOA

4. jardunaldia	
Lauburu-Eskoriatza	8-1

Sailkapena

3. Lauburu Ibarra	3p
-------------------	----

Hurrengo jardunaldia

Trintxerpe (2)-Lauburu (3)

GIPUZKOAKO SENIORRAK, 2. FASEA, BIGARREN MULTZOA

4. jardunaldia	
Garoa Tab.- Samaniego Orixe	9-1
Anoeta F.T. -Idiazabal	2-2

Sailkapena

3. Anoeta F.T.	5p
4. Samaniego Orixe	0p

Hurrengo jardunaldia

Anoeta F.T. (3)-Saman. Orixe (4)

Futbola

EUSKAL LIGA

30. jardunaldia

Aurrera de Vitoria-Tolosa CF	3-1
------------------------------	-----

Sailkapena

1. Tolosa CF	72p
2. Arratia	71p

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

31. jardunaldia

Aretxabaleta-Tolosa CF	0-0
------------------------	-----

Sailkapena

1. Eibar	73p
3. Tolosa CF	58p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (3)-Anaitasuna (2)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

26. jardunaldia

Tolosa CF-Ostadar	0-0
-------------------	-----

Sailkapena

6. Tolosa CF	31p
--------------	-----

ERREGIONAL PREFERENTEA, LEHEN MULTZOA

29. jardunaldia

Tolosa CF 'B'-Gure Txokoa	7-1
Billabona KE-Ostadar	1-1

Sailkapena

1. Euskalduna	74p
2. Touring	65p
5. Tolosa CF 'B'	51p
6. Billabona KE	48p

Hurrengo jardunaldia

Touring (2)-Tolosa CF 'B' (5)
Urnieta (13)-Billabona KE (6)

LEHEN ERREGIONALA, IGOERA FASEA

8. jardunaldia	
Pasaia-Danena	0-3

Sailkapena

3. Danena	12p
-----------	-----

LEHEN ERREGIONALA, KOPA

8. jardunaldia	
Euskalduna- Intxurre	1-0

Sailkapena

5. Intxurre	5p
-------------	----

Intxurre-Irauli Bosteko

GORENGO MAILA, KOPA

9. jardunaldia

Intxurre-Bergara	1-1
------------------	-----

Sailkapena

5. Intxurre	10p
-------------	-----

Eskubaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

30. jardunaldia

Tolosa CF-Alcorta Forging	32-21
---------------------------	-------

Sailkapena

1. Tolosa CF	52p
2. Anaitasuna	52p

Saskibaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

25. jardunaldia

Red. M. TAKE	71
Urgatzi	58

Sailkapena

1. Ulacia Grupo ZKE	20-5
2. Disdira Bitxitegia ISB	20-5
6. Redline Mekanika Take	15-10

Hurrengo jardunaldia

Avia Zizur Ardoi (13)
Redline Mek. TAKE (6)

GIPUZKOAKO LEHEN MAILA

Final-laurdenak

Txintxu Gozotegia-TAKE	79-39
------------------------	-------

Eskualdeko lau pilotariak, kanpoan

Erasunek Tolosan galdu ondoren, buruz burukoan aritu diren pilotari guztiak txapelketatik at daude

Erredakzioa

Iaz Jokin Altuna amezketarrak buruz buruko txapela jantzi eta Jon Erasun zizurkildarra promozio mailan txapeldunorde izan ondoren, aurtengo txapelketan dagoeneko ez da eskualdeko ordezkaririk geratzen ez lehen mailan ezta promozioan ere. Atzo Erasunek Darioren aurka galdu zuen Tolosan, 22-5, eta, beraz ezin izango du errepikatu iaz lortutako emaitza.

Final-laurdenetako partidak jokatu dira asteburuan, lehen mailan zein promozioan, eta lehian ari ziren lau pilotariek galdu dituzte euren partidak: Altunak, Erik Jaka lizartzarrak, Beñat Urretabizkaia ikaztegiatarak eta Erasunek.

Ostiralean jokatu zen, Donostiako Atano III.a pilotalekuan, Altuna eta Irribarriaren aurka. 22-18 galdu zuen amezketarrak, partida borrokatu eta kalitate handiko batean. Irribarriak erakutsi zuen dohain bereziak dituela buruz burukorako. Altunak azaldu zuenez, «gustura» ge-



Erasun, atzo, Beotibarren jokututako partidari. I.G.L.

ratu zen egindako partidarekin: «Hori bai, irabazteko dena ondo egin behar dut, eta bi-hiru tantan ez dut asmatu, eta gero ez dit aukerarik eman». Irribarriak «aspaldi ez bezala gozatu» duela gaineratu zuen: «Berak horrela agintzen duenean zaila da aurre egitea. Baina kirola horrela da. Orain, deskantsua hartu eta motibazio berrien bila hasiko naiz».

Lehen mailarekin jarraituz, Erik Jakak larunbatean jokatu zuen Ezkurdiaren aurka eta lizartzarrak 22-14 galdu zuen. Lanak eman zizkion Jakak arbizuarri, batez ere bigarren zatian.

Hasierako aurkako aldeari, ordea, ezin izan zion buelta eman eta txapelketari agur esan beharrean geratu zen lizartzarra. Hala eta guztiz ere, beste behin lehen mailako pilotaria dela erakutsi zuen Jakak.

Promozio mailari dagokionez, Urretabizkaia ostiralean jokatu zuen txapelketako partida Elordiren aurka Urduñan. 22-11 galdu zuen ikaztegiatarak.

Azkena lehian sartzen Erasun izan zen, esan bezala, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Dariok agindu zuen jokoan eta emaitzak berak horrela erakusten du.



LUIS MENDIGAINI OMENALDIA

Gorengo Mailako mutilen Tolosa CF taldeak, etxeko azken partida jokatu du asteburuan. Berezia izan zen, bederatzi urtez prestatzailea izan den Luis Mendigain tolosarrak taldea utzi-ko baitu denboraldi amaieran. Denboraldia amaitzeko partida bat geratzen bada ere, zaleen aurrean azken minutuak egin zituen entrenatzaile gisa Mendigainek. Hori dela eta, urte guzti hauetan bere jokalaria izan direnek eta orain taldean ari direnek omenaldi xume bat egin zioten. Pasillo bat egin zieten, eta ondoren bere alaba Leirek agurra dantzatu zion. Azkenik, bere ezizena daraman polo urdina, guztiek sinatutakoa, eta oroigarri bat jaso zituen. JOSU ARTUTXA



Larunbatean egin zuten TAK-eko traineruaren aurkezpenaren une bat. J. ARTUTXA

Aurtengo trainerua aurkeztu du TAK-ek

Patxi Frances da entrenatzaile berriak azaldu duenez, «sekulako taldearekin topatu naiz»

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

Duela bederatzi urte sortu zuen Tolosaldeko Arraun Klubak trainerua, baina Tolosa izenean ateratzen zen eta gero lau urte eman zituen Getariarekin bateratuta. Iaz urte batzuetan gordeta egon zen traineruari hautsa kendu ondoren, lehen aldiz, Tolosaldea izenarekin uretaratu ziren. Bide berri bat ireki zuten, eta emaitza bikainak lortu ondoren, aldaketa bat edo besterekin, aurrean ere erronka berdinari ekingo diote.

Amaia Agirre bertsolariak gidatu zuen TAK-eko traineruaren aurkezpena. Ezer baino lehen, Gipuzkoako Ligan eta Espainiako Txapelketan bandera bana eskuratu zituzten jubenil nesken lana goraipatu nahi izan zuten. Hori dela eta, beraiek izan ziren

oholtzara igotzen lehenak, bertaratutakoen txalo artean. «Esan genuen epe luzera begirako proiektua zela eta paladaz palada egingo genuela bidean aurrera. Bistakoa da horretan gabiltzala eta honi segida emango dion harrobia badaukagula».

Iaz, bandera bat eskuratu zuen Tolosaldeak ETE ligan. Errenteriako estropadan izan zen. Ligan, bestela, postu bikainak eskuratu zituen, eta gertu izan zituen bandera gehiago ere. Emaitzarik onena, ordea, abuztuaren 29an heldu zen, Donostiako badian. Inoiz ahaztuko ez duten eguna. Malen Oiartzabal arraunlari tolosarrak iazko oroitzenak ekarri zituen gogora: «Errekan ondutako arraunlariak gara, eta itsasora jauzia dago. Batez ere, 28 herriek emandako babesarekin geratzen gara; Donostiako arranja urdinarekin, oilo ipurdia jarri zitzaigun bati baino gehiagori, eta ametsa berrizteko ilusioa eman zigun. Hortaz, eskerrak eman beharrean gara, urtez urte gure burua harritu, eta zuek harritzen jarrai-

tzeko prest gaudelako».

Patroi lanetan ariko den Aiora Sorozabal orexarra, berriz, aurtengo erronkez mintzatu zen, ilusioz: «Denboraldi aurrean, lan ona egiten eta ordu asko sartzen ari gara. Horrek udaran positiboki eragitea espero dugu. Esperantza handiak ditugu, eta iazko emaitzak errepikatzea edota hobetzea nahi dugu». Arraunlarien ondoren, Patxi Frances entrenatzaile berriak hartu zuen hitza: «Sekulako taldearekin topatu naiz. Diziiplina handiko arraunlariak dira, gogo eta ilusio handia dutenak, eta zailtasunik jartzen ez dutenak».

Aurkezpenean, eskualdea osatzen duten 28 udalerrien izenean, zenbait udal ordezkari izan ziren Tolosan, eta arraunlariekin batera argazkia ateratu zuten, baita traineruaren laguntzaile eta babesle nagusiek ere. Amaitzeko, Tolosaldeko Arraun Klubak osatzen duen olatu urdina batzeko deia zabaldu zuten klubetik, «eskualdea amesten jarri eta udan elkar ikusiko dugulakoan».

Aimar Irigoien garaile, Gorostidi Harriaren lehian



Aimar Irigoien, harri baldarra jasotzen. I. URDALLETA

Harri-jasotzaile erreizildarrak tarte handia atera dio bigarren egin duen Jokin Eizmendiri

Irati Urdalleta Lete Aduna

Faborittoa zen eta bete dira usteak, Aimar Irigoienek irabazi baitzuen XIII. Gorostidi Harriaren Txapelketa. Jendetza elkartu zen Adunako frontoian harri-jasotzeaz gozatzeko.

Berez, bederatzi harri-jasotzailek parte hartu behar bazuten ere, lesioak medio, zazpi izan ziren Adunara joan direnak: Aimar Irigoien (Errezil), Jokin Eizmendi (Zarautz), Aimar Galarra (Orio), Xabier Peñagarikano (Aizarnazabal), Imanol Illarremendi (Aia), Gorka Etxeberria (Orio) eta Josetxo Urrutia (Leitza). Aurrean izan zituzten 160 kiloko zilindro zaharra, 155eko errektangular zaharra, 139 kiloko harri baldarra, 150eko kubikoa eta 100 kiloko bola, eta ba-

koitzari bi jasoaldi eman behar izan zizkieten.

Aimar Irigoien izan zen azkarrena, minutu bat, 53 segundo eta 51 ehunen behar izan baitzuten. Ondoren, Jokin Eizmendi sailkatu zen 2 minutu, 27 segundo eta 40 ehuneneko denborarekin. Hirugarrena izan zen Aimar Galarra lanak 3 minutu, 20 segundo eta 65 ehunenean eginda. Laugarren izan zen Xabier Peñagarikano 3 minutu, 59 segundo eta 37 ehunen behar izan zituen lanak amaitzeko. Imanol Illarremendi izan zen bosgarrena 4 minutu eta 11 ehuneneko denborarekin. Gorka Etxeberria seigarren sailkatua izan zen lanak 5 minutu, 22 segundo eta 90 ehuneneko denboran amaituta. Azkenik, Josetxo Urrutiak ez zuen lortu 150 kiloko harri kubikoa jasotzea.

Beste erronka bat ere bazegoen, urtero moduan: 185eko zilindro zaharra esku bakarrarekin jasotzea. 500 euroko saria zegoen lortuz gero, baina inor ez zen ausartu harria altxatzen.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Amagoia Unanua Lasa

Ormaiztegin hil zen, 44 urte zituela.

Nora galduak zineten gure lagun hurbilak bizitzaren ibiltari egun batean hilak, zuen itzalek diraute gaur, gaueko ametsetan bizidunaren solasgai diren min handietan.

Murumendi Eskolako Komunitatea



BEASAINEN, 2019ko maiatzaren 7an



ASTEARTEA, 2019KO MAIATZAK 7
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 07

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Biler a udaleku irekiez 18:30ean, kultur etxean. Alegiako Udalak eman du ezagutzera udari begira prestatu duen eskaintza. Udaleku irekiak eta itxiak, multikirola eta piraguismoa izango dira uztailaren garatuko diren jarduerak. Informazio biler a ireki bat izango da.

Amezket a. Amezketa mend i astearen barruan, 19:30ean, Tsa-ranoro, Madagaskar eskalada aitzakia dokumentalaren aurkezpena kultur etxeko areto nagusian.

Larraul. IV. Kirol Astearen barruan, 19:45etik 20:45era zunba irekia.

Amasa-Villabona. El silencio de los otros dokumentala Gurea antzokian, 20:00etan. Francoren erregimenaren biktimen inguruko dokumentala da, oraindik ere justizia bila dabiltzanena. Film dokumental onenaren Goya saria irabazi zuen lanak. Sarrera: 2 euro.



ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguneko albisteak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Joseba Landa Bartzelonatik, teknologiaren tarte a Tolosaldea Lanbide Heziketako ikasleekin eta Idoia Apaolaza psikopedagogoa.

11:00-12:00. Hamaiketako a. Ibarraldeko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko onena.

20:00-20:30. Kokondo. Oskar Tenaren musika tarte a.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde tik.
16:30. Elkarriket tap.
17:30. Gaurkoan Tolosalde tik.
21:30. Gaurkoan Tolosalde tik.
22:15. Ireki Kaxa (Turismoa Tolosalde an).
23:00. Zer jan.
23:30. Gaurkoan Tolosalde tik.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa.
Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefono zenbakia: 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa.
Azpiroz Galarza, Lourdes.
Amaroz auzunea, 9.
Telefonoa: 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro politarekin hasiko dugu eguna, baina orduak aurrera egin ahala kaskartzera egingo du. Arratsaldeko lehen orduak arte, nahiz goihodei dezente izan zeruan, giro lasaia, ateria eta oso epela izango da, non temperatura maximoa 22-24 gradu bitartean errendituko den. Arratsaldeko lehen ordutik aurrera ordea erdi-mailako hodeiek zerua estali eta egunaren amaiera euri pixka bat egingo du. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, azken orduetan bolada zakarrekin.



Bihar. Giro nahasia. Hego-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da egun osoan zehar, batez ere haizegune eta mendi inguruetan. Horrekin termometroak balio epeletan jarraituko dute, nahiz zertxobait behera egin. Maximoa 19-21 gradu bitartean errendituko da. Zeruan hodeiak nagusituko dira eta tarte ka euri pixka bat utziko digute. Zaparrada tartekatua izango dira, beraz, ordu askotan ateri eutsiko dio.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Urte askoan Manex!

Amasa-Villabona. Urte askuan Manex!
Eutsi goial! (Witxu)



Urte askoan Manex!

Amasa-Villabona. Maiatzaren 7an, Manexen urtebetetzea.
Urte askoan eta muxuak Amasa-Villabonatik! Maite zaituztegu!

URTE ASKOAN MANEX. MAITE ZAITUGU/ZAITUZTEGU. Etxekoak.

35 urte,
Betetzen dituzu.
beti oroitzen gera,
hori badakizu.

Manex zoriontzeko
bertsoa iten degu
besarkada bero bat
bidaltzen dizugu.

Doinua: Gizona da zoroa. / **Egilea:** Hodei Castro.